



BARREN
TOKIKOM



Gerratik ihesi, Mendarora



Josefa Suinaga Aguirre


2022ko apirilaren 30ean hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Luis Mari Arrillaga Garate

2022ko apirilaren 11n hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*A zer kolpea eman diguzun,
ta bihotzean ziztada,
nahiz ahul xamar igaro duzun
azken bi urteko bolada.
Tori bihotzez, lagunen eta
familiar besarkada.
Hor goitik ere, guri begira
egongo zara beharbada.
Hementxe izan zaren bezala,
ONGI IZAN, ARRILLAGA!*





Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 688 769 657
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Pilar Perez Hermecheo

2022ko apirilaren 29an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



*Ama eta emakume
galanta izan zara!
Gure artean izango
zaitugu beti!*

Zure familia





Agur baten esanahia

zehatza minik ez sufritzeko?

Inork ez gaitu prestatzen betirako agurrei aurre egiteko. Egoera latz hauek nola kudeatu esplikatzen ez digutenez, eta gure bizitzan zehar horretarako jarraibiderik jasotzen ez dugunez, ez dakigu nola jokatu une horretan.

Zortea gure alde jartzen bada, agur esan beharra egun edo hilabete batzuk lehenago aditzera ematen da. Orduan, gordeta dugun guztia esan, egin eta hitzmateko aukera bakarria jasotzen dugu. Momentu zail horietan gure zentzumen guztiak ipintzen ditugu pertsona horrengan, sentrazioak xurgatuz. Besarkada baten usaina, irribarre bat, azal leunaren sentrazioa... agian gure buruak tresna horiek beharko ditu ahanzturak bereak ez

*“Sentimenduak pilatuta,
‘laster arte’ bat
oparitzeko aukera
galtzen dugu”*

egiteko, ausentzia eta distantzia pisatzen dutenerako erretratu sensoriala gure barnean marraztuz.

Aitzitik, agur hori abisatu gabe iristen bada, esan gabeko azkenengo “maite zaitut” hori edo hainbeste beldurtzen gaituzten besarkada luze horiek eman gabe uzten baditugu, agurra jasanezina bihurtzen da. Une horietan sentitzen genuen guztia esan ez dugulako edo bihotzak esaten zigun guztia egin ez dugulako daramutzen gara. Agian, beldurratetik edo lotsagatik, baina sentimenduak pilatuta “laster arte” bat oparitzeko aukera galtzen dugu.

Agur askok gure egunerokotasuna markatzen dute. Bai maite dugun norbaiti agur esan behar diogulako, edota gure bizitzari oreka ematen zion egoera baten amaieratik. Horregatik eta indarrez ikasi dut, agur batek ezustean harrapatu ez gaitzan, zentzumen guztiak jarri behar ditugula egunero egiten dugun gauza bakoitzean, damu barik, tintontzian ezer utzi izanaren sentazio triste hori ez izateko.

Bizitzan zehar era guztietako agurrei aurre egin behar izaten diegu: lagun-senideei agur esan, balio ez diguten objektu zaharrak bota, aurrera egiten uzten ez diguten gure bizitzako garaiei amaiera eman... Agur esateko modu asko ditugu. Gaur min jasanezina ematen duten agurrei buruz hitz egingo dizuet, azken adioa egin, eta erantzunik jasotzen ez dugun horretaz.

Urteak pasa ahala, dena kontrolpean edukitzen saiatzen gara: bada-kigu zer egin sute bat itzaltzeko, badakigu nola erantzun istripu bat izan ezker... Baina, norbaitek ba al daki zelan agurtu gertuko norbait betirako? Norbaitek ba al daki zein den formula



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztazk ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, losu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izaguirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriando, Asier Guisasola, Maialen Sanchez **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

**B**asarteko eskailera mekanikoak zikin-zikinak daude:

"Basarte auzoko goiko aldeko eskailera mekanikoek mantentze lanen beharra daukate, edo gutxienez, garbitzeko beharra. Eskailera guztia, goitik beheraino zikin-zikin dago, eta eskertuko genuke garbitzea".

**Z**aborra bere lekura bota behar da:

"Aste Santuko eguraldia lagun, askok aukeratu zuten Idortorbeiko pago artea eguna pasatzeko, baina argazkian ikusi ahal den bezala, batzuk ez ziren gai izan eurek sortutako zaborra bere lekura eramateko. Eta ez da zabor ontzirik hurbil ez dagoelako, izan ere, argazkiko zaborra dagoen lekutik zabor ontzira bost minutu besterik ez dira behar. Poltsa horiek hor lagata, arriskua dago inguruko txakurrek poltsak apurtu eta dena barreiatzeko, beste batzuetan gertatu izan den moduan. Mesedez, errespetua!".

**G**abriel Krutzelaegi kalean gero eta zailagoa da bizikidetza:

"Gure kalean gazte asko pilotzen da astegunetan zein asteburuetan, eta liskar asko sortzen dituzte. Autoei arrautzak botatzen ibiltzen dira, pintadak egiten dituzte, baloiarekin jolasten dute etxeen kontra eta noizbait pibote bat leiho batetik norik sartu ere jolastu izan dira. Udaltzainei deitzen diegu, baina beraiek ezin dutela ezer egin esaten digute, eta bizilagunok ez dakigu zer egin. Nori dagokio hau konpontzea? Horrez gain, Gaztelekua gure kalean izateak gazte hauek gure kalera erakartzen ditu. Horregatik Udalarik galdetu nahi genioke ea aurreikusita duen, ludotekarekin bezala, gaztelekua ere lekuz aldatzea". Udaletik ondorengo erantzuna eman dute: "Udalak ez dauka Gaztelekua lekuz aldatzea aurreikusita. Gaztelekua dagoen lekuan dagoela ere, orain arte bezala jarraituko dugu esku-hartzen: Gaztelekua irekita dagoenean hezitzaileak bertan egoten dira gazteekin lanean, baita liskarrak daudenean edo jarraera desegokiak daudenean ere, eta Udaltzaingoari dagokionez, deia jaso orduko, dagokion prozedura jarraitzen dute eta herritarrei ahalik eta azkarren erantzun bat emateko lan egiten dute".

**Ikastaroak dauden bitartean kiroleko igerileku txikira joatea debekatuta dute gainerako herritarrek?**

Umeekin igerilekura joaten gara tarteka, baina noizbait igerileku txikitik bidali egin gaituzte, ikastaroak daudelako. Abonatu ginenean ez zigun inork esan ezingo genuela erabili igerilekua ikastaroak zeudenean. 40 euroko ikastaroa ordaindu behar da umeekin astean zehar igerileku txikira joan ahal izateko?. Kirol Patronatuko zuzendariak ondorengo erantzuna eman du: "Igerilekuko sarrerako taulan ikus daiteke igerileku txikiko erabilera ordutegia. Martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 19:30era (kolore gorritz), izan ezik, jaioberrien eta haur txikien ikastaroak daudelako, gainontzeko ordutegi guztian, ikastaroren bat egon arren, igerileku txikia edonork erabili dezake. Horrek esan nahi du igerileku txikia erabili ahal izateko ez daukazula ikastaro batean izena eman beharrik. Ordutegi horrek aldaketak izan ditzake eta igerileku handian egiten dugun bezala erabileran ikastarokoek lehentasuna izan arren, ikastaroak martxan jartzeko orduan erabiltzaileei igerileku txikiaren eta handien erabilerak ziurtatzeko neurriak kontuan hartzen ditugu".

Pilar ikastetxeko orubea Aldundiari laga dio Elgoibarko Udalak, egoitza eraikitzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku laga du Elgoibarko Udalak Pilarreko orubea, egoitza berria eraiki dezan. Hala onartu zuten eguaztenean Udaltzaren osoko bilkuran. Pilarreko Egoitza berriak Errezabal izena izango du, Pilar ikastetxeko guraso elkartearen omenez, zeinak, aldi berean, bertan zegoen baserriaren izena hartu zuen. Udaletik jakinarazi dutenez, 110 eta 130 plaza artean izango ditu Errezabal egoitzak eta eguneko zentro bat ere izango du, 30 eta 40 plazakoa. Esana zuten moduan, lurpeko aparkalekua ere eraikiko dute, 70 eta 150 ibilgailuentzako tokiarekin. Aparkalekuari dagozkion obrak Elgoibarko Udalak gauzatu ditu.

Lagapena bi erakundeek sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren barruan ulertu behar da. Lagapena egin aurretik, partzelaren kalifikazio juridikoa aldatzea onartu zuten. Finkaren azalera osoa 7.500 metro koadrokoa da, eta eraikin berria eraikiko duten zatiak 4.250 metro koadroko azalera du. Zati hori da, hain zuzen ere, Udalak Foru Aldundiari laga diona. Errezabal egoitza berriaren obra eta kudeaketa 2022ko bigarren seihilekoan lizitatuko dutela jakinarazi dute Udaletik eta 21 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua izango duela. Instalazio berria 2023 bukaerarako zabaltea aurreikusten dute.

Egoitzaren ezaugarriak

Egoitza berriak 10.500 metro koadroko azalera izango du, gutxi gorabehera. Ekipamendu berri hori 12-18 pertsonako bizikidetzaz-unitate txiki osatuta egongo da, gehienak banako logelak izango dira (logelak %75 gutxienez), eta komunitatera irekita egongo da, inguruan izango dituen berdeguneekin, egonleku zabalekin, jantokiekin eta kafetegiarekin, eguneko zentro batekin (40 plaza) eta unitate psikogeriatrico batekin (12-15 plaza izango ditu).

'Establezimendu Lagunkoia' ekimenak adinekoentzako aulkia oparitu die saltokiei



Establezimendu Lagunkoia ekimeneko talde eragileak aulki bat oparitu die atxikitako 32 establezimenduei, adineko pertsonak eseri ahal izateko, erosketa egiteko unean beren txandaren zain dauden bitartean. Loreak Emakume Taldeko kideek ere parte hartu dute proiektuan. Jostun tailerrean kuxinak sortu dituzte aulkiak erosoagoak izan daitezen, Zabalzen Sartu elkartearen eta Marisabel Etxeberria herriko jostunaren laguntzarekin.

Banatu dituzte 'Elgoibar bizi-bizixa' kanpainako sariak

Elgoibarklik tokiko saltokiaren online salmentarako plataforman bultzatzeko, *Elgoibar Bizi-bizixa* kontsumorako bi bonu zozkatu ditu Elgoibarko Udalak, bakoitza 30 euroko balioarekin, eta Maider Insaustiri eta Izaro Etxegibeli egokitu zaizkie. Guztira 357 lagunek parte hartu dute zozketan.

2022ko udaberriko kontsumo-bonuen kanpaina honetan Udalak 25.000 euro inbertitu ditu eta 3.300 merkataritza-bonu izango ditu. Maiatzaren 13ra bitartean, herritarrei %25eko deskontua egingo diete kanpainara batutako dendetan gutxienez 5 euroko eta gehienez 60 euroko gastua egingo dutenean, beti ere bono-txartelak agortu ez bazaizkie dendetan. 43 denda batu dira kanpainara.

Matrikulazio aldia zabaldu dute musika eskoletan


Zabaldute matrikulazio aldia Elgoibarko eta Mendaroko musika eskoletan. Mendaroko maiatzaren 15a arteko epea dago. Horretarako eta informazio gehiagorako bide zabaldute dituzte: emaila (ameikutz@gmail.com) eta telefono bidezkoa (943 254 275 / 619 306 493). Elgoibarran, maiatzaren 31a arteko epea dago izena emateko. Aurten ikasle izan direnen matrikulazioa automatikoki egingo dute, aurten izena emanda egon den ikasgai guztietan. Datorren ikasturte begira aldaketaren bat egin nahi duenak abisua eman beharko du: emailaz (elgoibarmusika@elgoibar-musika.eus), telefonoz (943 742 145 / 628 929 055) edota idazkaritzara gerturatuta edo irakasleari esanda.

Estreinakoz musika eskolan izena eman nahi duenak idazkaritzara jo beharko du 15:00etatik 21:00ak bitartean, matrikulazio orria betetzera.

Ekainean hasiko dituzte Mendaroko ospitalerako igogailua egiteko lanak

Construcciones Amenabar S.A. enpresari esleitu dio Mendaroko Udalak ospitalerako igogailuak egiteko obra, lehiaketa publikoan parte hartu zuten bost enpresen artean puntuaziorik onena eskuratu zuelako. Udalbatzaren apirileko osoko bilkuran onartu zuten esleipena, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Proiektuaren azken aurrekontua 1.478.639,34 eurokoa izango da (+%21eko BEZa). Obrak ekainean hasiko dituzte eta hamar hilabeteko epean bukatzea aurreikusten dute.

Mendaroko 2019-23 Kudeaketa Planean jasota dago "ospitalerainoko irisgarritasuna hobetzeko" proiektua. Igogailuak 27 metroko desnibela lotuko du bi igogailuren bidez: bata Kilimon hiribidetik Andoneikua hiribidera, eta bestea, handik ospitalera. Era berean, beste geldialdi bat egitea aurreikusten dute Maite Maiora Kirolgune parean. Bi igogailuek hiru geraleku izango dituzte. Proiektuaren harira Iñaki Arregi alkateak esan du igogailuak asko erraztuko duela mendaroarren, bisitarien eta ospitaleko pazienteen mugikortasuna. Era berean esan du ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzen lagunduko duela eta kirolgunea jende gehiagok erabiliko duela. "Etorbizuneko apustu estrategikoa da Mendarorentzat", gehitu du.



Gure inguruko arroka bolkanikoak ezagutzeko irteera antolatu dute domekarako, 'Geolodia' ekimenaren barruan

Elgoibarko, Soraluzeko eta Eibarko arroka bolkanikoak ezagutzeko ibilbide geologikoa antolatu du Espainiako Geologia Elkar-teak astebururako, Geolodia ekimenaren barruan. Maiatzaren 8an, domekan, izango da irteera, eta duela 110 milioi urte sortu ziren arroka bolkanikoak ezagutzeko aukera izango da. Ibilaldia Elgoibarko Olaso hilerriaren inguruan hasiko dute eta handik Eibarrerantz joango dira, Azitain industrialdera, leherketa bolkanikoak eragindako arroka ikustera. Ibilbidea Soraluzen amaituko dute, bidegorrian. Ibilbidea euskaraz edo gaztelaraz egiteko aukera egongo da. Azalpenak euskaraz entzun nahi dituztenentzat 9:00etan jarri dute irteera-ordua Olason, eta gaztelaniaz entzun nahi dituztenak ordubete geroago abiatuko dira leku beretik. Ibilaldia hiru bat ordukoa izango da, eta parte hartzeko izena eman behar da aurrez Geologia Gipuzkoa 2022 webgunean sartuta.

Herrian ikasteko gela bat egokitzeko eskatu du Mendaroko EH Bilduk


Mendaroko udal liburutegia "umeentzako zerbitzu hutsa" izan ez dadin eta hango eskaintza zabaltzeko, aldaketak egitea beharrezko ikusten du EHBilduk. Orain, eskaera horri, ikasteko "espazio egoki bat" egokitzeko beharra gehitu diote. "Eta egokia diogunean lekuaz eta ordutegiaz ari gara bereziki", zehaztu dute prentsa-oharrean. Nabarmendu dute Mendaroko Udalak lokal aukera ezberdinak dauzkala funtzio hori betetzeko egokitu daitezkeenak, udaletxean bertan zein beste eraikinetan, eta "lehenbailehen" heldu behar zaiola gai horri. "Gela honen irekiera ordutegia ere, jakina, ikasleen beharretara egokitutakoa izan behar da ezinbestean; bai urtean zehar, eta nola ez, azterketa garaia hurbiltzen denean", jaso dute. EH Bilduren ustez, udal zerbitzu egokiak izatea urrats garrantzitsua litzateke familia askoren ongizaterako.

Kontsumitzaileen Arretarako Bulegoak posta elektronikoko berria du

Merkatu Plazan dago Kontsumitzaileen Arretarako Bulegoa, eta herritarren kezak eta zalantzak argitzen dituzte bertan. Kontsultak aurrez aurre egiteko, hitzordua eskatu behar da 943 743 088 telefono zenbakira deituta edo honako beste helbide elektronikoko honetara idatzita: omicelgoibar@gmail.com. Nahi duenak, bestalde, helbide elektronikoko hori bera erabili dezake kontsultak online egiteko.

Karakatera protesta-martxa antolatu dute domekarako

Karakate mendigainean jarri nahi duten zentral eolikoaren proiektuaren kontra, protesta-martxa antolatu dute Elgoibarko eta Sorraluzeko Karakate Bizirik plataformek domekarako. Elgoibarren, Kalegoen plazatik abiatuko dute martxa. Umeekin igo nahi dutenek 10:00etan izango dute irteera-ordua, eta gainerakoek, 10:30ean. Sorraluzetik abiatuko den martxak ere bi ordu izango ditu irteerarako: 9:30ean (Plaza Berria) eta 10:30ean (San Andresen). Antolatzaileen asmoa 12:00etan denak goian elkartzea da. Gailurrean, txorizo-pintxoak, gazta eta salda banatuko dituzte antolatzaileek.



Debabarrenerako proposamen ekonomikoa lantzen dihardu EH Bilduk



Eusko Legebiltzarrean Debabarrena suspertzeko urrian martxan jarri zuten ponentzia baliatu nahi du eskualdeko EH Bilduk, eskualdearen garapenerako beharrezkoak izango diren proiektuak identifikatzeko eta adosteko. Ildo horretan, lan-saio berezia egin zuten eskualdeko EH Bilduko 40 bat ordezkari, zapatuan. Saio horretan bildutakoekin behin-behineko proposamena osatu dute. Maiatzean eta ekainean eskualdeko erakunde eta eragile nagusiekin elkartuko dira ordezkariak, euren proposamenak aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko, eta horrekin guztiarekin osatuko dute behin betiko proposamena. Horren harira, Igone Lamarain Gipuzkoako arduradun instituzionalak nabarmendu du proiektuak garatzeko inbertsiorik handienak Eusko Jaurlaritzak egingo dituela, baina instituzio guztien arteko elkarlana eta inplikazioa izango direla beharrezkoak, azkeneko bost urteotan eskualdean eman den desindustrializazioak eskualdean eragin duen egoera zuzentzeko.

Gazteen alokairurako laguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak

2022ko alokairurako udal-laguntzen lerroa zabaldu du Elgoibarko Udalak, 18 eta 35 urte arteko gazteei etxebizitza bat alokatzeko erraztasunak emateko eta emantzipazioa sustatzeko. Udalak 25.000 euroko partida bat du horretarako, "eskabide kopuruari egokitu dakiokena". Interesdunek ekainaren 3a baino lehen egin behar dute eskabidea, modu telematikoa, www.elgoibar.eus webgunean sartuta.

Etxebizitzaren alokairuaren hileko kuotaren zati bat da diruz lagunduko duena Udalak, baina laguntza hori lortzeko, etxebizitzaren alokairuaren prezioa ezingo da izan 600dik gora eurokoa [kanpo gelditzen dira babes ofizialeko etxebizitzak, azpietxebizitzak, logelen errentamenduak eta etxebizitza gisa erabilitako lokalak]. Laguntza eskatzeko bete beharreko beste baldintzak honako hauek dira: 18 eta 35 urte bitartean izatea; gutxienez azkeneko bi urteetan Elgoibarren erroldatua egotea; etxebizitzarik ez izatea jabetzan; bestelako laguntzarik ez jasotzea alokairurako; urteko diru-sarrerak 18.000 eta 30.000 euro gordin artekoak izatea, eta dirulaguntza hau aurreko hiru deialdietan jaso ez izana.

Seigarren urtea da Udalak diru-laguntza lerro hau zabaltzen duena, eta iaz, bederatzi elgoibartarrek jaso zituzten laguntzok. Bost urtean, 89 onuradun izan dira.

Gazta azoka eta sagardo dastaketa egingo dute domekan, Mendaron

Elgoibarren zapatuan egin zuten gazta azokaren parekoa egingo dute domekan, maiatzaren 8an, Mendaron, Herriko Enparantzan. 11:00etatik 14:00ak bitartean, Debabarreneko bost gaztandegitako gaztak probatu eta erosteko aukera izango da Herriko Enparantzan. Horrez gain, Mendaroko Ertate eta Ospas baserrietako sagardoak dastatzeko aukera ere egongo da. Azokan parte hartuko duten bost gaztandegiak honako hauek izango dira: Elgoibarko Mausitxa (ardi gazta), Sorraluzeko Egotza (ahuntz gazta), Mallabiko Axeleku (behi gazta), Mutrikuko Goienetxe (ardi gazta) eta Eibarko Sosola (ardi gazta).

Gotzon Garateri euskarazko esamoldeak biltzen lagundu zioten baserritarrak azkenekoz batu dira, Elgoibarren



Gotzon Garate (1934-2008) je-suita, idazle eta euskaltzaleari *Atsoitzak* liburua ontzen lagundu zioten baserritarrak eta haren ondorengoak Elgoibarren batu ziren zapatuan, duela hogeita sei urte hasitako ohiturari jarraituz. Ohi legez, meza izan zuten lehenengo, Elgoibarko San Bartolome parrokian, eta ondoren, San Bartolome kalera joan ziren, Garateren jaiotxe aurrera. Han, Angel Ugarteburuk jarritako bertsoak eta *Xalbadorren heriotzean* kantatuz oroitu zuten laguna. Bideoa: [barren.eus](https://www.barren.eus)

1967an ekin zion baserriz baserri bilketa lanari Gotzon Garatek. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ibili zen, eta hogeita hamar urteko lanaren ostean, 27.000tik gora atsoitz bildu zituen, horietako 14.000 bat euskarazkoak. "Baserrira euskararen unibertitate zela esaten zuen beti Gotzonek eta baserrietako sukaldeetan aritzen zen euskarazko altxorrek, hitzak eta esamoldeak, batzen", esan du Koldo Katxok, Gotzon Garateren lagunak elkartzeko egitasmoaren sustatzaileetako batek. Katxok azaldu du Ahierrako Kapotenea base-

rriko Andre Martinoni eta herri bereko apaiz zen Mixel Lekuona euskaltzale eta bertsozaleari bururatu zitzaizela Garateri lagundu izan zioten Iparraldeko eta Hegoaldeko baserritarrak urtean behin batzea eta adiskidantza hari eustea. Eguna ere zehaztu zuten: Maiatzaren 1a, Langileen Nazioarteko Eguna. "Euskararen langileen egunarekin lotu genuen", zehaztu du Katxok. 1996an sortu zuten ekimen hori gauzatuko zuen antolakuntza-taldea, eta geroztik, 24 urtez, urtero-urtero elkartu dira jatordu baten bueltan, kantuan eta solasean aritzeko. Estreinako aldian, Loiolan (Azpei-

tia) batu ziren eta Azkoitiko Aittola-Zar jatetxean egin zuten otordua; eta Aralarako San Migelen egin zuten azken topaketa, 2019an. Bizi zen artean urtero saiatu zen Garate bilkura horietan parte hartzen, eta hil-hurren zela, usadioari eusteko eskatu zion Koldo Katxo lagunari. Hala ere, adinean aurrera doazela eta, urtean behin batzeko ohitura horri amaiera ematea erabaki zuten azkenekoz bildu zirenean. Elgoibarren elkartzekotan gelditu ziren, baina pandemiagatik, bi urteko etena egin behar izan dute, harik eta zapatuan berriro elkartu ziren arte.





Goian: Mauro Gonzalez, Carmen Larrañaga, Oksana Koval, Pablo Lopez, Inna eta Nina Ilnytska alabar-
amak, Esti Gonzalez. Behean: Nazar (2006), Anna (2010) eta Nasya Koval (2008) neba-arrebak, harreran hartu dituen familiako alaba Lara Lopezekin (ezkerretik hirugarrena).

Ukrainan dute gogoa

Otsailaren 24an operazio militarra hasi zuen Errusiak Donbass eskualdean, Ukraina ekialdean, eta gerra legea ezarri zuen Kieveko gobernuak. Jugoslaviako gerrez geroztik Europan izan den eraso militar handiena izan da -izaten ari da-, eta gerra guzti haiek 1990ko hamarkadan eragin zuten beste errefuxiatu eragin ditu dagoeneko: lau bat milioi, Nazio Batuen Erakundearen arabera. Gerratik ihesi irten diren horietako batzuk Euskal Herrira ere iritsi dira. Txernobil ingurukoak dira hona etorri diren gehienak, elkartasun programen barruan udak Euskal Herriko familietan igarotzen dituzten haurrak eta haien etxeokak. Horixe da Anna Koval (2010) eta Inna Ilnytskaren kasua (1991). Ama eta bi neba-arrebekin batera iritsi da Mendarora Anna, eta amarekin etorri da Inna. Bizitza berri bat hasi dute hemen eta esker berbak baino ez dituzte harrera-familientzako, baina haien gogoa Ukrainan dago. Badira itzultzen hasi direnak ere.

- AINARA ARGOITIA -

Eskuko telefonoa dena da gerran dena lagata datorrenarentzat. Etxekoei lotuta mantentzeko erreminta dute, eta ezinbestekoa zaie askori Euskal Herrian bizitza berri bati ekiteko ere, itzultzailea behar dutelako uneoro. Hala dabilta egunotan Mendarora iritsi diren ukrainarrak eta haien harrera-familiak, eskuko telefonoari itsatsita. Itzultzaile automatikoari nola berba egin ere ikasi dute. Gaur, baina, Yulia Prokopenko (Cherkasy, Ukraina) lagunari eskatu diogu mesedea. Prokopenko Mendaron bizi da, baina berak ere Ukrainan ditu gurasoak eta loa galduta dabil aspaldian. Eskertu diogu ahalegina. Elkarriketa hasi orduko aipatu dute aspaldian zebilela Ukrainan Errusiak operazio militar handia hasi zezakeelako zurrumurrua, baina hala ere, ezustean harrapatu zituela. “Nork pentsatuko luke halakorik XXI.mendeant?” , bota du Nina Ilnytskak.

Ukrainazaleen eta errusiazaleen arteko eztabaida ez da berria, eta Donbassko gatazka ere ez. Baina azkenaldiko gertaerek are gehiago gaiztotua zuten giroa. Oilar jokoak hasia zuten Errusiak eta Mendebaldeak, Estatu Batuak buru. Errusiako tropak

Ukrainako mugan mugitzen hasita zeudela ikusita, baziren hilabete batzuk AEBek Errusiari abisua eman ziotela: Ukraina inbadituz gero, zigor ekonomiko gogorrak ezarriko zizkiola mehatxu egin zioten Errusiari. Tentsioa handituz zihoan egunetik egunera, eta atzerriko tropak, armak eta ekipamendua 1997an NATOk kide ez ziren herrialdeetatik erretiratzeko eskatua zien Errusiak AEBei. Baina, kontrara, hegazkin eta itsasontzi gehiago bidali zituen NATOk Europa ekialdera. Diplomazia lanetan saiatu ziren zenbait herrialdeetako gobernuburuak, baina otsailaren 11n, Errusiaren erasoaldia egun gutxiren buruan hasi zitekeela ohartarazi zuten AEBek eta zenbait herrialdek Ukrainatik irteteko eskatu zieten beren herritarrei. “Otsailaren 16an gerra hasiko zela sinetsi genuen, baina ez zen hasi, eta lasaitu ginen denok”, zehaztu du Oksana Kovalek (Stanyshivka, Ukraina, 1991). Indarkeriak ez zuen, hala ere, etenik Donbassen, eta giro horretan, otsailaren 21ean, Luhanskeko eta Donetskoko herri errepublikan independentzia aitortu zuen Errusiak, Mendebaldeko potentzien babes barik. Hiru egun geroago,

operazio militarra agindu zuen Vladimir Putin Errusiako presidentek.

“Gerrak ezustean harrapatu zituen ukrainiar asko. Inork ez zuen sinetsi nahi gerta zitekeela”, esan du Anna Makalishkek, gerratik ihesi Zarautzera iritsi den 28 urteko emakumeak [3 urteko semearekin eta koinatarekin etorri da, 6 urte zituenetik 18 urte egin bitartean udaro hartu duen familiaren etxera]. Gurasoenean zegoen albistea iritsi zitzaizenean. “Goizaldeko laurak eta laurdenean deitu zigun lagun militar batek gerra hasi zela esanez, eta ia aldi berean mutil-lagunak [suhiltzailea da] deitu zion ahizpari kontu berarekin. Aita ez beste guztiok etxean geunden”. Aitak Txernobilgo zentralako mantentze lanak egiten dituen enpresa bantzatzat egiten du lan eta lanean ari zen, baina hari ere etxeratzeko agindu zioten. Ondorengoak “kaos orduak” izan zirela oroitzen du Makalishkek.

Dokumentazio guztia bildu zuten ihes egin beharra balego ere, baina mehatxua ate joka izanda ere, zaila da norbere etxea lagatzea. “Goiz erdira Zarauzko familiarekin jarri nintzen harremanetan. Ordurako hegazkin hotsak hasiak ziren Ivankiven, eta bombardaketak ere entzuten genituen aparterago. Gure etxe ondoko bidean [Txernobildik Kievera doan errepide nagusia] gero eta ibilgailu militar gehiago ikusten hasi ginen. Geureak ziren, mugara bidean [50 kilometrorra dute Bielorrusia]. Senarrak ihes egiteko ordua zela esan zidan. 15:00ak aldera ziren”. Gizonak berak eraman zituen Poloniarako mugaraino emaztea, 3 urteko semea eta arreba, erreserbista izateko izena eman aurretixoan. Bi eguneko bidaia izan zen, “amesgaizto bat, arriskutsua zelako oso eta ez nekielako berriro etxera itzultzerik izango ote nuen noizbait, baina nirea ezer gutxi izan zen etxean gelditu zirenek pasatu zutenarekin alderatuta”. Annak zain zuen familia bat Euskal Herrian. Haren amak eta ahizpak, ordea, ez zuten etorri nahi izan gizonak han lagata [18 eta 60 urte arteko gizona zekoei herrialdetik irtetea galarazi zien Gobernuak].

Lanean harrapatu zuen albistek Oksana Koval ere. Erizaina da, eta suhiltzailea du gizona. Stanyshkivkakoak dira, Ivankivetik hamar bat kilometrorra dagoen herri batekoak. Errusiak eraso handia hasi aurreko egunetan herri inguruetan kontrol-postuak ugaritu zirela aitortu du Kovalek, baina bizitzak “normal-antzean” jarraitzen zuela. Otsailaren 24ko goizaldean eten zen normaltasuna. Goizaldeko ordubietan, lanean ari zela, Ivankivetik ehun bat kilometrorra bizi den lagun baten deia jaso zuen. “Tiroketak-eta hasi zirela esan zidan eta zerua sutan ikusten zutela. Sare sozialetan sartu eta jabetu nintzen zetorkigunaz”. Behar baino goizago esnatu ziren ukrainarrak eta telefonia-zerbitzua kolapsatu zuten elkarri deika. “Giro nahasi hartan, gerentea etorri zitzaigun esanez lasai egoteko eta eguerdira arteko gure lan-txanda amaitzeko. Handik



Oksana Koval eta haren hiru seme-alabak harreran hartu dituen familiarekin.

bost minutura hots egin zigun berriro ezinbestean gure lan-txanda luzatu beharko genuela esanez. 5:00ak aldera deitu nion senarrari eta hark esan zidan larrialdi-deia izan zutela eta lanera joan beharra zuela. Eta hiru ume guk etxean!”. Amaginarrebarenean utzi zituen aitak hiru seme-alabak, 11, 9 eta 7 urtekoak. Oksanari, berriz, eguerdira arteko txanda bete eta etxera joateko baimena eman zioten lankide gizona zekoei. Umeak jaso, eta beren etxera itzuli zen. Ezkutatu zituen haurrak eta itxi zituen ate eta leihoak. Iluna egin zen.

OKUPAZIOA

Gerra etxeko atarian eta alabetako bat, ihesi, errusiarren tropak sartzen ari ziren bide beretik. Negarrari eman dio Annaren amak, Nina Ilnytskak, ondorengo egunak oroitzean. “Konturatzerako etxean genuen etsaia”. Hogeita lau orduren barruan hartu zuten Ivankiv errusiarrek. 25 goizean jarri zuten bandera errusiarra plazan eta itxi zituzten sarrera-irteera guztiak. “Zeruak bizia hartu zuen. Misilek lagatako lorratzek argi-argi eginda zuten”, gehitu du Oksanak. “Ordurako etxean itxita geunden gu, ilunpetan, leiho eta ate guztiak ahal bezain gogorren itxita. Gure etxeak ez dauka sotorik, eta komuna iruditu zitzaigun leku seguruenak, leiho txikia duelako. Eguna han pasatzen genuen, eta lo sukaldean egiten genuen, lurrean”, oroitu du Ninak, alabarekin batera Mendarora iritsi den emakumeak. Bortxaketa gerra estrategia dela bazekien eta 22 urteko alaba ezkutuan mantentzea izan zuen lehen arduratako bat. Ordurako konexiorik ez zuten eta aitak irten behar izaten zuten ondoko herri batera, konexio bila. “Bizirik gaude”, mezua jaso zuen Annak ondorengo hiru egunetan, harik eta martxoaren 5ean argindarrak, urik, eta konexio aukera hori gabe gelditu ziren arte gurasoak. Apirilaren 1a arte ez zuten gehiago elkarren berri izan [Errusiarrek Ivankivetik alde egin zuten eguna].

“Banekien egun batzuetarako jatekoa bazutela; behintzat patata, uzta ona izan genuelako iaz. Baina hirugarren egunerako

“Pasaporteak eta umeen agiriak ezkutatzeko esan zidan senarrak eta alabak babesteko, etxez etxe hasiak zirelako etsaiak”

dendak eta farmaziak hutsik zeuden eta gorriak pasatu dituzte askok”. Arpilatze handiak izan ziren. Ihes egindakoen etxeak kontra mendeku hartu zuten errusiarrek, eta txikitu zituzten haien etxeak eta ondasunak. Babesgabetasuna erabatekoa zen. “Beldurragatik edo dena delakoagatik, Ivan-kiveko Udalak uko egin zion Ukrainako Gobernuaren alde egiteari eta gerra hasi eta biharamunerako inork ez zekien alkatea non zegoen”, azaldu du Annak. Haserre daude. “Gerra hasi zenean administrazioak erre edo deuseztu egin behar zituen arma-baimena zutenen datuak edota Ukraina ekialdeko gerra-eremuan ibili zirenen datuak, edonork daki hainbeste, baina ez zuten egin, eta Errusiarrek gogor egin dute haien eta haien etxeak kontra. Gu denon berri dute”, zehaztu du Ninak, Annaren amak.

25ean bertan gelditu ziren argirik gabe Oksanarenean. Ordulaurden bateko baimena eskatu eta etxera itzuli zen gizona, ama-umeak hartu eta Rozvazhivera eramateko, etxean sotorik ez zutelako. Hartzaindegi huts bateko sotoan babestu ziren. “Gehienak amak ginen, ume txikiekin. Gauerako, gainezka geunden”. Suhiltzailea izanda, joan-etorrian ibili zen gizona, otsailaren 28an etxeratze agindu zieten arte, laneko dokumentazio guztia erre ostean. “Etxerakoan ikusi zuen jendea etxeetatik aterazten ari zirela eta eraikin publiko batera eramaten zituztela giza-ekzutu gisa erabiltzeko. Kievera iritsi nahi zuten errusiarrek, herritarrek ezkutatzen erabiliz. Herrian, gerra ibilgailuen mugimendu handia zegoen eta etxetik ezin ginen irten. Arroparik erantsi gabe ematen genuen gaua, ohean, bostok elkarrekin, errezuari eta begirik itxi gabe, irten beharra balego ere”.

Bonbardaketek ez zuten etenik; arpilatzek ere ez. “Ihes egindako etxeak arpilatzen zituzten errusiarrek, eta goseak estu hartu zituenean gureak ere hasi ziren lapurretan”. Horregatik, izebaren etxeraino joaten ibili zen egunen batzutan Oksanaren senar Victor Kobal. Abiatu zen batean, baina, ez zen iritsi. “Buelta eman zuen, izututa. Pasaporteak eta umeen dokumentazioa ezkutatzeko agindu zidan eta alabak babesteko, etxez etxe hasiak zirelako etsaiak. Entzuna geneukan ez zutela inongo eskrupulorik. Ohepean gorde nituen alabak”. 30 urte ditu Oksanaren senarrak, eta haren aldean, kalez kale zebiltzan soldaduak umeak zirela dio. “Kalean ikusten zutenari tiro egiten zioten eta ez zuten uzten gorpuak hilerrian lurperatzen. Etxe atarian lurperatu zituzten etxeak auzoak. Ivankiveko parrokoa ere hil zuten. Inork ez zuen pentsatzen Elizaren

kontra egingo zutenik. Danbateko handia izan zen”, zehaztu du Annak.

Errusiarrek etxeraino sartu zitzaizkion Oksanari etxez etxe armak konfiskatzen hasi zirenean. Senarra ehizaria du, eta hark aitortu zien arma-baimena ez ezik eskopeta ere bazuela etxean. “18 bat urteko bi soldadu ziren.

Haietako bat etxean sartu zen, eta bestea sargentuari zerbait galdetzeraz joan zen. Atean gelditu nintzen eta neure buruari esan nion ez niola bigarren bati etxean sartzen lagako, pentsatu nuelako bakarraren kontra defendatuko zela senarra, baina biren kontra, ez. Zorionez, baina, kartutxoak hartu eta alde egin zuen soldaduak, lasai egoteko esanda. Berak ere bi ume zituela esan zidan kanporakoan”.

Martxoaren 8rako erabat itxita zegoen Ivankiv ingurua eta ez zegoen handik ihes egiterik. “Labadorak, lastairak... dena eramaten zuten, baita txakurrentzako etxolak ere”. Bizirik hilda zituen beldurrak. “Minaz josita zegoen ingurua, sutan bazterrak. Zubiak eraitsi zituzten eta militarrek baino ez zebiltzan kalean. Ihes egitera ausartu ziren asko bidean hil ziren”, esan du Ninak. Elkarri laguntzen saiatzen zirela nabarmendu dute, baina askok senperrenak eta bi pasatu zituztela. Argindar gabe gelditu ginenean, arrain izoztua saltzen duen enpresa batek zuen guztia banatu zuen alferrik galdu aurretik, eta Ivankiv ondoko arrain haztegi baten ugazabak erabaki bera hartu zuen. Horrek salbatu zituen asko”, gehitu du. Hilabetez iraun zuten hala. Aipatu du errusiarrek

Inna eta Nina Ilnytska, harreran hartu dituen familiarekin: Oskar Aizpurua, Ainhoa Garro eta Naia Aizpurua.



etxean atzean ezkututzen zituztela tankeak, ukrainarrek eraso ez ziezaieten herrikideak tartean zituztela, eta Kieveko gobernua alkohola saltzeko ezarri berri zuen araua bertan behera laga zutela Errusiarrek. "Ahul nahi gintuzten. Gerra propaganda grabatzera ere behartu zituzten bizilagun asko. Jatekoa banatzen zuten, ukrainarrok 'beso zabalik' hartu genituela erakusteko", esan du Ninak.

ERRUSIARRREN ERRETIRADA

Erasoak etengabeak ziren, baina gogorrena martxoaren 31koa izan dela dio Oksanak. "Egunez dena zen bonba-hotsa. Ohe azpian eman zuten eguna umeez. Erretirada hasi zuten errusiarrek. Gauean, erabateko isiltasuna nagusitu zen, eta beldurrak gain hartu zigun, bonba-hotsera ohitu zarenean isiltasuna beldurgarria egiten delako, ez baitakizu zer ariko diren prestatzen. Guretik 25 bat kilometrora dauden Kukhari, Sloboda-Kukhars'ka eta Pidhaine herriak erabat desagerrarazi dituzte". Biharamun goizean izebaren etxera abiatu zen gizona bizikletaz eta "pozez negarrez" etxeratu zen, 'joan dira, garbi dago herria' esanez. Apirilaren 1a zen. Lasaitasun-halako bat iritsi zitzaien.

Bitartean, Euskal Herrian hilabete zeramaten haien berririk gabe. Ukrainatik ihesi irtendako Annak ere ez zuen gurasoen berririk izan apirilaren 3ra arte. "Gutxienez astebeterako irteteko erregutu nion amari. Ezin nuen gehiago. Agindu nion itzuliko ginela luze gabe etxera". Amak ez zuen nahi, ordea. Hala ere, biharamunean, Kievetik Txernobilerako bidean ukrainarren ibilgailu militarrik ikusi zituenean berriro, beldurtu eta etsi-etsian onartu zuen alabaren proposamena. Suiak eraman zituen bera eta alaba Leopoli seraino eta Poloniarako autobusa hartu zuten han. "Ihes egin zezaten nahi nuen, baina aldi berean ni irten nintzenean baino arriskutsuagoa zen ihes egitea, errepide eta zubi guztiak txikituta zeudelako eta inguru dena minaz josita. Ez nuen arnasarik hartu mugara iritsi ziren arte", gaineratu du Annak. Ordurako, ahizpa gaztea, sei urtez Mendaron hartu zuen familiarekin harremanetan zen Anna, eta eskainia zioten haiek etxea ama eta ahizparentzat.

SARE SOZIALAK, EZINBESTEKOAK

Martxoaren 5ean galdu zuen Carmen Larrañagak komunikazioa Anna Kovalekin, Ukrainako alabarekin. "Beharra balute, gure etxeko atea zabalik zutela esan gabe gelditu nintzen". Geroztik, egunero-egunero bidali dio mezua Carmenek Annari, Telegram bidez. "Animo hitzak bidaltzen nizkien, noizbait irakurriko zuten itxaropenarekin".

Carmenen alaba Esti Gonzalez eta suin Pablo Lopez egunero ari ziren sare sozialetan Ivankiveko berri bila eta elkarteak, Asociación Txernobil Elkarteak, egunero bidaltzen zien eguneko laburpena. "Mapa bat inprimatu arazi nion alabari eta hura eskuan hartuta irakurtzen nuen txostena". Mahai gainean zabal dute gaur ere mapa. Apirilaren 4an, "desesperazio betean", Pablo Lopezek mezu bat laga zion Oksanari Facebookeko bere perfillean, eta haren senarraren izebak 'atsegin du' eman zion [Izeba horrek inbasioaren egun berean ihes egin zuen Ukrainatik eta Euskal He-



Familia baten beroa topatu dute Mendaron Kovaldarrek, nahiz etxekoen eta lagunen falta handia izan.

rrian zegoen errefuxiatuta, Erandion]. Mezu pribatuak etorri ziren gero: 'Victor Kobalen izeba naiz. Ilobak eskatu dit esateko bizirik daudela baina zoritxarrez ezin dela haiekin telefono bidez komunikatu. Zaila izan dute umeekin bizirauten, baina orain ondo daude. Umeak hartzeko prest baldin bazaude, mesedez, jakinarazi eta esango diet'. Eta mezu horri, arratsaldean, hilabete luzez itxarondako deia batu zitzaion. "Annak deitu zion gure amari eta lehertu ginen denok", oroitu du Esti Gonzalezek. Biharamunean, Mendaroko familia Erandiora joan zen, umeak hartzeko prest zudelako esatera eta nola egin adostera.

Zeinek goxo hartu bazuten Euskal Herrian. Gainera, Errusiako tropak erretiratuak ziren Ivankiveitik eta "okerrena" pasata zegoen ustez, baina erabakia ez zen erraza. Egoera horretan zeudela, baina, erradiaktibitate maila bikoiztu egin zela jakin zuten. Txernobilgo hondamendia itzaltzeko erabili zuten makinaria guztia lurperatu zuten basoan, baso gorrian, lubakiak-eta egin zituzten errusiarrek eta hauts harrotze horrek erradiaktibitatea izugarri handitu zuen. "Errusiako soldaduek eurek pairatu zuten inork baino lehenago eragina. Ezpainak lehortzen zitzaizkigula konturatu

ginen, eta ihes egiteko, erabakigarria izan zen hori”.

Erabakia hartu zuten, eta hasi zituzten haiek Euskal Herrira ekartzeko tramiteak mendarorrek. “Hasieran, izeba horrek esan zigun umeak bakarrik bidaliko zituztela, Ukrainako Gobernuak erreserbistak mobilizatzeko legea onartu zuelako eta estatuari laguntzea erabaki zutelako gurasoek, nahiz familia ugaria izanda herrialdea uzteko baimena aitortua zieten. Hori jakinda, lanean baimena eskatu eta bariku horretan bertan Poloniako mugara geuk joatea erabaki genuen, elkarre baten bidez bideratu zitekeen arren, ez zitzaigulako iruditzen gurasoengandik banandu eta ezezagunen esku jartzea mugan umeak. Elkartetik lagundu ziguten dena zuzentzen”, kontatu du Estik. Apirilaren 5ean izan zen hori. Ordu gutxian dena zuten lotuta, apirilaren 8an Poloniara abiatzeko, baina gutxira, berriro deitu zien Erandioko izebak umez gainera ama ere hartuko ote luketen galdezka. “Ez genuen zalantzarik egin. ‘Bai’ esan genien, edonork egingo lukeen moduan. Eta gaur da eguna eskerrak ematen dudala, ez baitakit zer egingo genukeen umeekin ama etorri ez balitz. Mutikoak oso gaizki darama dena, aitaren falta handia duelako, eta ezin izaten dugu kontsolatu negarrez hasten denean, elkar ulertzerik ere ez dugulako. Gauetan negarrez somatzen dugu mutikoa, baina orain, sikiera ama du ondoan lasaitzeko”.

Bizi izan dutena ahazteko lanak dituzte ukrainiarrek. Solasaldi bete-betean gaudela, txirrinak jo du elkartean eta supituan jaiki dira bi amak, eta eten da solasa. Polonian izan den elkartekide batek kontatutakoa ekarri du gogora Estik horren harira: “Haurrentzako globoak eraman zituzten gure elkartekideek Poloniara eta puztu zituzten han parkeren batean, lehertu zen bat, eta poza izu bihurtu zen. Kontatzen du baita etxean hartu dituzten bi neskatok gauero-gauero aulkia jartzen dutela atearen kontra”.

EUSKAL HERRIRAKO BIDEA

Apirilaren 8an hartu zuten Euskal Herrirako bidea Oksanak eta hiru seme-alabek. Senarrak eta biek egin zuten Przemysleko mugara arteko bidearen zati handi bat lehenengo, bidea arriskutik libre zegoen egiazta-tzeko, eta etxera itzuli eta seme-alabekin errepikatu zuten gero bide bera. Asociación Txernobil Elkarteak eta haiekin batera familiak gerra eremutik ateratzen ari den Galdakoko Boluntarioen Gizarte Elkarteak lagundu zieten handik aurrerakoan. Ez zuten erraza izan, hala ere. Oksana eta umeak irten zirenean jende-olde handiak egin zuen ihes, eta irteera bera zaildu zitzairen. “Buelta ematekotan ere egon ginen”. Katowicen (Polonia) hiru egun egin zituzten. Lehenengo gaua hotel batean pasatu genuen, eta beste biak kiroldegi antzeko batean. Jende asko geunden”. Poloniako mugara giza laguntza eramatera joan ziren CC Ayuda al Desallorrio gobernuz kanpoko erakundearentzat ari ziren boluntario batzuekin, Joan Anton Decembre eta Ramon Soga-

sekin, egin zuten Euskal Herrirako bidea handik. “Izugarri harreman polita egin dugu haiekin. Izugarriak dira. Dena zor diegu”, nabarmendu du Estik.

Apirilaren 13an iritsi ziren Euskal Herrira eta nekez ahaztuko dute Carmen Larrañagarenean. “Apirilaren 13a egun seinalatua izango da gurean. Apirilaren 13an izan ginen gu euren etxean, 2017an, eta egun berean etorri dira gurera, bost urte geroago”. Oksanaren seme-alabak joan zen barikuan hasi ziren eskolan Mendaron eta “pozik, eskertuta eta seguru” sentitzen da ama, baina itzuli nahi du Ukrainara. Han ditu ama, senarra eta gainerako senide eta lagunak eta baratza lantzeko garaia ere orain da. “Orain landu ezean, ez dugu gero uztarik izango”. Etxea laga zuenetik ez du amarekin hitz egiterik izan, argindarrik eta konexiorik gabe jarraitzen duelako eta senarrak ematen dio haren berri, aldika. “Oso eskertua nago Euskal Herriko familiari. Seme-alabak lasaiago daude hemen, Poloniara iritsi ginenean hegazkin bat entzuten zuten aldiro ezkutatzera egiten zutelako. Hemen dena eman digute. Orain, lan egitea baino ez dut nahi, besterik ez dudalako egin orain artean ere: lana”.

Horixe nahi lukete Nina eta Inna Illytskarak ere. Oscar Aizpurua, Ainhoa Garro eta haien alaba Naiarekin bizi dira Mendaron apirilaren 13az geroztik, “seguru eta pozik”, eta Zarautzen dute Anna, semearekin. Annak filologia espainiarra eginda dauka eta lanean hasi berri da, Astigarragan, garraio-larientzako aparkalekuan, itzultzaile lanetan. “Ez genuke etxean hartu gaituzten familien bizkar bizi nahi hemen. Ez dugu karga izan nahi. Ukrainara itzuli nahi genuke, giroa baretutakoan”, azpimarratu du.



Nina eta Inna Illytska ama-alabak Mendaron.

Ganau ona (edarra) izan: Ser buena pieza.

Gana(d)u ona zan haura! / Ganau edarra zan! / Ganau edarra dagok gure umia!

Kiribilek jaso du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Atxutxiamaikari egindako oparia

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Kuikui* antzezlanaren taularatu zuten apirilaren 29an Herriko Antzokian, eta herrian euskara sustatzen duen Elgoibarko Izarra elkarreko Atxutxiamaikari aitortza egiteko baliatu zuten saioa, urteetan umeen aisialdia euskaraz eskaini eta umeak euskarara hurbiltzeko egiten duen lanagatik. Kiribilek jaso zuen euskararen habia goxoa. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus



Elgoibarko dantzariak Oiartzunen izan dira



Inazio Bereziartua musika eskolako dantzariak liga txapelketako azken jardunaldia jokatu zuten zapatuan, Oiartzunen. Amasa-Villabona, Lasarte, Zizurkil, Legazpi, Oiartzun, Pasai Donibane, Andoain, Lezo eta Lizartzako dantzariekin batera aritu ziren Duna Santos, Unax Ansoa eta Uxue Cabrera, eta arduradunen esanetan, txukun aritu ziren. Elgoibarko dantzari hauen emanaldia ikusteko aukera izango da Kalegoen Plazan, maiatzaren 27an.

Buruhandi berriek ezagutu dituzte Elgoibarko umeak

Pandemia garaian ezagutu zituzten Elgoibarko umeak Tartalo, Basajaun, Basandere eta Mari buruhandiak, ospatu ez ziren San Bartolomeen harira antolatutako bi erakusketen esker. Bistaz ezagutzen zuten elkar, baina zapatuan izan zuten benetako zita. Umeek sekulako harrera egin zieten buruhandi berriei, eta sekulako giroa sortu zuten herriko kaleetan zehar. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus



210 dantzari batuko dira bihar, Birakaren Barran

Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, *Biraka Barra* ikuskizuna prestatu du Biraka dantza taldeak biharko. Elgoibar, Eibar eta Soraluzeko 210 dantzari batuko dira Kalegoen plazan, eta klaseetan egiten dituzten ariketak erakutsiko dituzte. Dantzialdia hasi aurretik Sue Jin Kang Koreako Balleteko zuzendariak idatzi duen mezu instituzionala irakurriko dute. 12:00etan hasiko da ekitaldia.

Adinekoen musika eskolak ezagutzeko saioak

Musika Eskolak atek irekiko ditu, 60+ musika eskolak herritarrei erakusteko. Maiatzaren 11n, 75 urtetik gorakoek izango dute saioa probatzeko aukera, eta hilaren 12an, 60tik 75 urtera artekoek. 11:00etatik 12:00etara izango dira saioak.

Iruñera txangoa antolatu du Haizeak

Haizea Emakume Taldeak Iruñera irteera antolatu du maiatzaren azkenengo astebururako. Besteak beste, Iruñeko Planetarioa eta Oteiza museoa bisitatuko dituzte. Maiatzaren 28an 8:00etan irtengo dira Elgoibartik, King Kong-eko autobus geltokitik eta Iruñean pasatuko dute gaua, hango hotel batean. Interesatuak Pitxintxun eman behar dute izena. Informazio gehiago: haizeataldea@gmail.com edo 623 479 972.

Jun Shiraokaren argazki erakusketa Kultur Etxean

Ongarrik antolatuta, Jun Shiraoka argazkilaria japoniarren lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, gaurtik hilaren 21era. Zuririk garbientetik beltz absoluturainoko irudiak izango dira. Astelehenetik zapatara bisitatu daiteke erakusketa, 18:30etik 20:30era.



'Made in' Elgoibar

Elgoibarko Musikarien Elkarte sortu zuten 2018an herriko musikariei bultzada emateko asmoz, eta joan zen zapatuan egin zuten taldearen jendaurreko aurkezpena. Elgoibarko Musikarien Eguna antolatu zuten, eta horren barruan herriko sei taldek kontzertua eman zuten. Elgoibartarrek Elgoibarren eginiko musika bistaratu zuten. Umore onez eta giro onean joan zen eguna, gustura, lagun artean eta musikaz gozatuz. Estreinakoz ospatu zuten Elgoibarko Musikarien Eguna, baina aurreratu zuten ez zela azkena izango. Argazki guztiak barren.eus atarian.



Ellie Jensen.



Eleaners.



Jeizy's Tyros



Dani and the sotos.



Maite Maiora omendu dute Mendaroko eskola-umeek

Eskola kiroleko jarduera osagarrien barruan, Mendaroko eskola-umeek entrenamendu saio berezia izan zuten barikuan. Maite Maiora herriko korrikalaria eta diziplina ezberdinetan birritan munduko txapeldun izandakoa izan zuten entrenatzaile lanetan. Korrikalariaren izen bereko kirol-gunean hasi zuten saioa, eta luzaketa ariketen ostean, elkarrekin osatu zuten ia hiru bat kilometroko ibilbidea. Maite Maiora kirol gunean hasi, ospitalera igo, eta handik Lasalderretik bueltan, Herriko Enparantzaraino joan ziren tropelean. Han, parte-hartzaileetako batek testu bat irakurri zuen, Arno Guraso Elkartearen eta parte hartu zuten guztien izenean, eta ondoren, lore-sorta bat eta Arnoren kamiseta bat oparitu zizkieten umeek. Maiorak esker on hitzak izan zituen guztientzat, eta hurrengo saio baterako gonbita egin zien. Gustura hartu zuten haurrek proposamena. Bideoa eta argazkiak barren.eus

Juanan Martinek hirugarren egin du Nafarroa Xtrem lasterketako ibilbide konbinatuan



Nafarroa Xtrem lasterketa jokatu zuten apirilaren 30ean, Zubirin (Esteribar, Nafarroa). Lasterketa GR322 ibilbidearen barruan egiten dute, eta distantzia desberdinak ditu. Luzeenak, NX68 izenekoak, 68 kilometro ditu eta Alvaro Ramos Peña (6:57:34) eta Sara Peña (8:47:04) izan ziren azkarrenak distantzia horretan. Bestetik, 35 kilometroko proban (NX35) Iñaki Olano (3:01:32) eta Oihana Kortazar (3:40:04) gailendu ziren. Ibilbide laburrenean, NX22, Iñigo Macias (1:58:10) eta Aitziber Mendibil (2:19:42) izan ziren azkarrenak 22 kilometroko ibilbidea osatzen. Juanan Martin Leiva elgoibartarra bi probatan lehiatu zen, goizean 35 kilometrokoan eta arratsaldean 21 kilometrokoan. Bietan lortutako denborak (4:07:04 + 2:48:53) batuta hirugarren postua eskuratu zuen distantzia biak batzen dituen sailkapenean, -NX35+22- eta hala podiumera igo zen. Elgoibartar eta mendaroar gehiagok ere hartu zuten parte. Sailkapenak eta argazkiak: barren.eus

Arrizabalagak eta Lizarralde Euskal Herriko pala txapelketako finala jokatuko dute

Girizia elkarteak antolatzen duen Euskal Herriko Pala Txapelketa irekiaren 38. edizioko finala jokatuko dute maiatzaren 14an, Oiarzungo Madalensoro pilotalekuan, eta Elgoibarko eta Azkoitiko palistak arituko dira lehian. Lagunak taldeko Gorka Lizarralde eta Kepa Arrizabalagak osatutako bikoteak Aizpuru-Epelde bikote azkoitiarra izango du aurkari lehen mailako finalean. Bigarren mailan ere elgoibartar bat iritsi da finalera: Mikel Arrieta. Salegirekin bikotea osatuz Lesakako Mitxelena eta Garbisuren aurka jokatuko dute.





Plazan aritu dira futbolean C.D. Elgoibarko neska gazteak

Nesken artean futbola sustatzeko helburuarekin Kalegoen plazan eta Lekuederren aritu ziren futbolean hainbat neska gazte, bariku arratsaldean. Futbol Eskolan harrobiarekin egiten diharduten lana bistaratu eta neskak futbolera erakartzeko helburuarekin antolatu zuen ekitaldia C.D. Elgoibarrek, Mintxetan egiten dutena herrigunera gerturatuta. 2011tik 2014ra bitartean jaiotako neskek jokatu zuten futbolean.

Igerilari benjaminek Azpeitian amaitu dute Kirol Zehaztasun Liga



Kirol Zehaztasun Ligako (KZL) bosgarren jardunaldia jokatu zuten benjamin mailako igerilariak Azpeitiko Udal Igerilekuan, Test-KZL Ligako azkenekoa. Elgoibarko Igeriketa Taldetik jakitera eman dutenez, 50 metro tximeleta eta 200 metro estiloak probetan hartu zuten parte Elgoibartik joandako igerilariak, duten adinerako proba zorrotzak, baina "emaitza oso onak" lortu zituzten. "Denboraldiko azken froga izan bada ere, taldea lanean jarraitzeko gogoz bueltatu zen Azpeititik", esan dute. Aurtengo denboraldiari maiatzaren 28an amaituko dute Olaizaga kiroldegian egingo duten Elgoibarko Igeriketa Egunean.

Aroa Saez gailendu da Bergarako lasterketan

Eskolarteko txirindularitza txapelketa jokatu zuten zatuan, Bergarako Labegaraietan prestatutako zirkuituan. Debagoieneko, Debabarreneko eta Urola Garaiko txirindulari gaztetxoek hartu zuten parte, kategoria txikienetakoak –infantilak arte–. Elgoibarko Lagun Taldeko kideak ere aritu ziren lehiatzen eta Aroa Saez izan zen azkarrena infantil mailako nesken artean. Lagun Taldeko juniorrak Irurtzunen lehiatu ziren domeka goizean eta Segurako lasterketan hartu zuten parte kadeteek, domeka arratsaldean.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainzeko edo zerbitzari moduan lan egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 643 440 462

16 eta 17 urteko bi neska gara eta lan egin nahiko genuke, ekainean eta uztailean, umeak zaintzen edota merkataritza, dendaren batean ☎ 609 715 085

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 631 425 686

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Berehala hasteko prest. ☎ 632 415 374

Garbiketak egiteko, sukaldean laguntzeko edo zaintza lanetarako prest nago. Eskarmentua eta elikagaiak manipulatzeko tituluak ditut. ☎ 643 427 770

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 947 065

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 942 123

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Titulazioa daukat. ☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Goizez, orduka. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. ☎ 602 342 429

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ 662 460 266

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. ☎ 631 218 724

Edozein lan egiteko prest nago. Paperak legez ditut. ☎ 631 677 339

OSPAKIZUNAK.....

1971n jaiotako bazkaria maiatzaren 28an, Belaustegin. 80 euro sartu maiatzaren 13rako: ES65 3035 0007 21 0071141938 . (Izena eta abizena jarri). (1971elgoibar@gmail.com).

1957an jaiotako bazkaria maiatzaren 28an, Sigma jatetxean. Argazkirako, 14:00etan Plaza Handian. 55€ (ES88 2095 5036 55 1074745950). Maiatzaren 25erako.

1961ean jaiotakoek 61. urteurrena ospatzeko bazkaria egingo dute maiatzaren 21ean, Sigma jatetxean. 61 euro sartu kontu honetan: ES59 3035 0007

21 0071141949. Izen abizenak zehaztu behar dira ordainketa egiterakoan.

1970ean jaiotako bazkaria ekainaren 4an, Sigma jatetxean. 70 euro ordaindu behar dira: ES55 2080 3629 1630 4002 8386 (Bankoa, Abanca)

1972an jaiotako bazkaria, ekainaren 18an, Sigma jatetxean. 80 euro ordaindu behar dira, maiatzaren 31rako: ES40 3035 0007 26 0071134189 (Laboral Kutxa).

BESTELAKOAK.....

Eraztun bat aurkitu dut, ezkontzako dirudi. ☎ 612 462 120

Txakurkumeak oparitzen dira. ☎ 688 642 761

Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Prezio onean. ☎ 688 642 761



administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas **Enkainatutako Administrazioaren Buzkariak Kontatzen**



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke zer erantzukizun duen gehiegikeriaz jokatu eta komunitatean kalteak eragiten dituen presidente batek.

Bere jardunean presidentek gehiegikeriarik egin edo komunitateko, jabeen zein hirugarren pertsonen ondasunei kalte egingo balie, erantzukizun zibila eska dakioke batzarrean erantzule izan dadin, hierarkikoki honen mende baitago. Jabeen batzordeak ezarri beharko ditu, legalki jasotakoez gain, presidentek bete beharreko funtzioak. Presidenteari, zuzenean emandako eskuduntzez gain, baliozko akordio bidezko ordezkaritza baino ez dagokio eta baldintzatua gainera. Beraz, modu propioan zein analogikoan berari dagokio ezartzea berari emandako mandatua lekualdatzeko debekua. Mandatua emandako arauen arabera bete behar da. Hortaz, gehiegikeriaz jokatuz gero, engainuaren arduradun ezezik erruarena ere bada eta mandatua ordaindua izan den ala ez ikusita, auzitegiak erabaki beharko du zehaztasun gehiago edo gutxiagorekin baloratu.

Ondorioa: Kargua kentzeaz gain, komunitatearentzat ekonomikoki benetan kaltegarria izan den zerbait gertatu bada, ordaindu egin beharko du presidentek eta ordainketa hori legalki exijitu ahal izango zaio.

ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2




ZORIONAK

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Luken**, gaur 8 urte bete dituzulako. Elgoibarko zure familiakoen partez. Asko maite zaitugu.




Zorionak, **Jakes**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Elgoibarko zure familiakoen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Ane**, apirilaren 27an 7 urte egin zenuelako. Muxuak Nuria, Leire, Maialen eta amamaren partez.



Zorionak, **Ibon!** 10 urte beteko dituzu maiatzaren 10ean. Ospatzeko prest? Patxo handi bat, maitea.



Zorionak, **bikote**, zuen urrezko ezteietan. 50 urte elkarrekin bidea egin, eta aurrera! Merezi duzuen moduan ospatuko dugu.



Zorionak, **Iker**, eguztenean 8 urte bete zenuelako eta beste horrenbeste zuri, **Haritz**, gaur 11 urte egingo dituzulako. Muxu handi bana etxekoen eta lagunen partez. Asko maite zaituztegu.



Zorionak, **bikote!** Iritsi dira azkenean hainbeste desioetako egunak!! Pozez ospatuko ditugu familia eta lagunartean, zuen 2 eta 5 urte potoloak!



Zorionak **aita-alabari!** Ea ondo-ondo ospatzen dugun. Zorionak eta muxu bat biontzat etxekoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA



Hortzetako pasta alde batera utzita, zeintzuk dira aho-higienarako oinarrizkoak diren zainketak?



Gaur, Aldaz Hartz Kliniketako doktoreen esku-tik, gure aho osasunari eusteko higie-ne-ohitura onak izateak duen garrantzia zein den ikasiko dugu. Ikusiko duzuen moduan ez da nahikoa hortzak garbitzea! Hortzetako pasta, kolutorioak edo irakuzketak dira aho-hortzen higienarako erabili behar ditugun elementuetako batzuk, baina ez garrantzitsuenak.

Ahoa egunero zaintzeko, ezinbestekoa da hortzak ondo eskuilatzea, bai eskuko eskuila batekin, bai eskuila elektriko batekin. Aho garbiketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin, eskuilatzeko teknika egokia erabiltzea garrantzitsua da, baita egunero erabiltzen diren eskuilak aldiro aldatzea ere. Zeta edo hortzetako haria erabiltzea ere oso garrantzitsua da, eskuila bere funtzioa betetzeko gai ez den gure hortzen azalera guztietara iristea ahalbidetzen baitigu.

Hortz-protesiak, inplanteak eta ortodontzia-gai-luak daramatzaten pertsonak zainketa espezifiko-agoak behar dituzte. Zure kasua hori bada, dentistak edo higienistak adieraziko dizu zein den zuretzat garbiketa modurik egokiena.

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

6 BARIKUA

19:00 Zine Foruma: 'El inconveniente'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lila Emakumeen Etxean.

18:30 Argazki erakusketa: 'Jun Shirak: Henry Bellan-Hucheryren'. Ongarri Argazkilari Taldeak antolatuta, Kultur Etxe erakusketa gelan egongo da ikusgai.

18:40 Ipuin kontaketa saioa, Mendaroko liburutegian. Debako ipuinkontalariak eta Neska Ausarten Klubak hartuko dute parte.

7 ZAPATUA

11:30 Tailerra: 'Kolare jasangarriak ehungintzan'. Cynthia Pazmiñok tindagai naturalei buruzko saioa emango du, IMHko museoan. Izena emateko: museoa@museoa.eus / 943 748 456

12:00 'Biraka barra'. Biraka dantza taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

8 DOMEKA

10:00 Karakaten jarri nahi dituzten eoliken kontrako martxa. Kalegoen plaza-tik. 10:00etan, umeekin abantatzeko; 10:30ean abiatuko dira helduagoak. 12:00etan Karakateko aparkalekuan bat egingo dute Soraluzekoekin.

11:30 Debabarreneko gazta azoka, Mendaron.

11 EGUAZTENA

11:00 Ate irekiek: 60+ musika saioa ezagutzeko. 75 urtetik gorakoentzat. Musika Eskolan.

12 EGUENA

11:00 Ate irekiek: 60+ musika saioa ezagutzeko. 60tik 75 urte bitartekoentzat. Musika Eskolan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Cámara café: la película'

6 barikua: 19:00

7 zapatua: 19:00 / 22:15

8 domeka: 19:00

9 astelehena: 21:00

'Zinegoak'

11 eguaztena: 21:00

MATRIKULAZIO ALDIA!
2021-2022an JAIOTAKOENTZAT

Goxotasunean oinarri sendoak eraikiz

943 744441

ELGOIBAR IKASTOLA

P. M. Urruzuno Kooperatiba

WWW.ELGOIBARIKASTOLA.EUS

ATE IREKIAK

MAIATZAK 9, 18:00ETAN

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
6 BARIXAKUA	7 ZAPATUA	8 DOMEKA	9 ASTELEHENA	10 MARTITZENA	11 EGUAZTENA	12 EGUENA	13 BARIXAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'GAZTE' ANTZEZLANA - MAIATZAK 7, EIBARKO ERREBAL PLAZAN

Gazte, kaleko antzerki-dantza ikuskizuna da eta Oinkari Dantza taldearekin elkarlan artistikoan aurkeztuko dute. Oliotegiko oiloen antzera nekez isilduko dira. Egun bakoitza topera bizitzeko gogoz, indarrez eta irrikaz.



LAGUNAK
solaheneria textil lagar

6 hilabete
interesik gabe
atseden hartzeko
produktuetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

ROWENTA X-PERT 3.60 RH6971WO
FLEX ANIMAL ERRATZ XURGAGAILUA

- 3 batean. Kablerik gabe, mugarik gabeko garbiketarako
- 22 V
- Edukiera: 0,5 L
- Iragazki garbigarriak
- 45 minutuko autonomia
- Berriz kargatzekoa
- Soft Roller eskuila



186,90 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



1960

Aste honetako erretratu zaharra Maritxu Agirrek bidali du BARREnera. Santa Clarako eskolan ateratako erretratu da, 1960koa. Argazkian ageri direnak laugarren mailan zeuden, eta hura izaten zen Santa Claran egiten zuten azken urtea, Batxilergoa hasi aurretik. Ikasturte amaieran jaialdia egiten zuten, eta horietako antzerki batean ateratako argazkia da hau. Ikus ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak: **Atzean:** Mari Juli Konde eta Kontxi Gabilondo. **Erdian:** Angelita Larrañaga, Maritxu Agirre, Rosa Mari Mata eta Mari Jose Zubiaurre. **Aurrean:** Maria Isabel Lizarralde.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Maiatzak 10, martitzena

19:00etan, Aita Agirreko areto nagusian

Segidan, elkartearen bulegoa bisitatu eta mokadua egingo dugu.





Paco Gurrutxaga Muguruza
2022ko apirilaren 30ean hil zen, 74 urte zituela.



***Gure oroimenean bizi zaren artean,
betiko izango zara gure bihotzetan.***

Zazpi kuadrilla



I. URTEURRENA

Ana Mari San Martin Aranberri

2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
maiatzaren 7an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.
Beti gure bihotzean.***

Etxekoak



V. URTEURRENA

Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Etxekoak



X. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzean.***

Familiakoak





UXUE IRURETAGOiena ANDRES (20 urte, Zaldibia) Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza LEINN graduko bigarren maila egiten ari da Mondragon Unibertsitatean, Oñatiko campusean.

“ Adorea, diziplina eta grina behar dira hain gazte izanda enpresa bat aurrera eramateko ”

■ **Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**

Lardizabaleko Herri Eskolan eta Ordiziako Jakintza Ikastolan ibili nintzen. Nire zaletasun edo interes nagusiak kirola, artea eta musika dira.

■ **Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Hamaika gradu goitik behera berrikusi ondoren, LEINN iruditu zitzaidan nire neurrira egindako gradua eta izena eman nuen. Metodologia ezberdinak, proiektuen garapenak eta bidaiak erakarri ninduten hasiera batetik.

■ **Nola baloratuko zenuke LEINNen bizitako esperientzia?**

Gorabeherez betetakoa izan da. Ibilbidea ez da samurra, talde-lanak bere zailtasuna du eta ekintzaile izateak buruhauste izugarriak ekartzen ditu. Baina azken finean, hori da LEINNen xarma, eta talde-lanari esker eskuratzen ditugu beste graduetan lortzen ez diren hainbat konpetentzia garrantzitsu. Gaur egun, enpresetan irtenbide berriak aurkitzen dituzten, bestelako begirada duten, edozein egoeretan aurrera egiteko prest dauden eta perfil guztietako jendearekin lan egiteko erraztasuna duten pertsonen bila dabilta.

■ **Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Hezkuntza sistema poliki-poliki eraldatzen ari da eta LEINN gradua horren adibide garbia da; izan ere, ikasketa molde tradizionalak hautsi eta teknika berri-tzaileak erabiltzen dituzte gazteen ikasketetan eta bizitzetan eragiteko. Ikasitako guztia praktikan jartzen dugu, eginez ikasten dugu egunetik egunera. Eta me-

todologiaren askatasunari esker, zure ikaste prozesu propioa garatu eta diseinatu dezakezu.

■ **Lehen egunetik enpresa bat sortu unibertsitatean eta proiektuak garatu. Nola egiten da hori?**

18 urterekin unibertsitatean sartu eta norik esan lezake enpresa bat sortu duela? Ikasteko modu hoberik ez dago, lan munduari aurre egiten ikasten baitugu lehen egunetik, eta hori ez da azterketak eginez eskuratzen. Adorea, diziplina eta lan egiteko grina behar dira 19-20 urteko 17 gazte ekintzailek enpresa bat aurrera eraman dezaten.

■ **Zer proiektu mota garatu dituzu LEINN graduan zehar?**

Urtebete daramat Euskadiko kirol entitate ezberdinen digitalizazioaren inguruan proiektu bat garatzen. Tekirola izenekoa. Horrez gain, Euskadiko herri txiki-kien kultura ondarearen inguruan lan egiten hasteko asmoa dugu BDCC-rekin (Basque District of Culture and Creativity) batera. Azkenik, Mondragon Team Academyk aurten martxan jarri duen We4all proiektuan murgilduta nago. Ekintzailetza soziala burutzen dugu hainbat gairen inguruan: migrazio krisia, klima aldaketa edo LGTBIQ+.

■ **Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango dituzu?**

Lehen mailan Berlinen egon ginen baina, Covid-a zela eta, oso esperientzia txarra bizi izan genuen. Aurten Costa Ricara bidaiatu ahal izan dugu hilabetez, eta bizi izan dudako esperientziarik politenetakoa izan da. Hango ekintzaileen ekosistema erakargarria iruditu zitzaigun eta hainbat enpresa ezagutzeko abagunea izan genuen. Hurrengo urtean Asiara bidaiatuko dugu hiru hilabetez.

“Hurrengo urtean Asiara bidaiatuko dugu hiru hilabetez.”